

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ZAMUDIOKO UDALAREN 2020KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen joan den maiatzaren 26an Zamudioko Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena.

2020ko ekitaldiko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** eman du, unean uneko bi salbuespeni dagokienez izan ezik: 2016a baino lehenagoko azpiegituretako inbertsioak ez amortizatzea; eta Memorian ez jasotzea ebazteke dauden erreklamazio batzuei buruzko informazioa.

Fiskalizazio-gai izan dugun Kontu Orokorretik ondorioztatzen den **finantza-egoerari** dagokionez, Epaitegiak ondorioztatu du COVID krisiaren ondorioz 2020an izandako diru-sarrereren jaitsiera hein batean konpentsatu dela erosketak murriztu izanaren ondorioz. Halaber, langileen gastuak, dirulaguntzak eta transferentziak handitu egin dira, eta horrek 2020an sortutako aurrezki garbia murriztea ekarri du. Haatik, Geldikin erabilgarriak egonkor eutsi dio aztertutako aldian.

Udaleko Kontu-hartzaitzaren txostenak adierazi du, COVID krisiaren ondorioz 2020rako ezarritako egonkortasun-helburuak bertan behera utzi baziren ere, Udalak helburu horiek bete dituela, eragiketa ez-finantzarioetan superabita lortu duelako, zorpetzera jo beharrik izan ez duelako eta 2019koaren aldean gastua murriztu delako.

Udalak zuzentasunez **bete du** 2020an ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen **lege araudia**, nahiz unean uneko akatsak azaleratu diren administrazioko kontratazioaren atalean, izan ere bi kontratu mugaegunaz haratago luzatu dira eta prozedura ireki sinplifikatu bitartez esleitu behar zatekeen espediente bat kontratu txiki modura izapidetu da.